

DONOSTIA APAIN EK MARGO-LAN BERRIAK EGITEN JARRAITZEN DU

- **Loiolako eta Altzako aurreko edizioetan bezala, hiriko artisten margolanak Urumea ibaiaren ertzetara itzultzen dira.**
- **Programak bidearen erdia gainditu du sei esku-hartze eginda eta beste bost egiteke. Urrian aurkeztuko da azken emaitza.**

Donostia Kulturaren kultur etxe sarearen ekimena da Donostia Apain, eta artearen bidez hiriko auzoen garrantzia ikusarazten laguntzea du misioa. Helburu horrekin antolatu ditu azken urteotan artista muralisten topaketak Loiolan (2019) eta Altzan (2021). Herritarren partaidetzarako Olatu Talka jaialdiaren 2019ko hamargarren eta azken edizioaren baitan hasitako arte-urbano topaketan du jatorria.

Hirugarren edizio hau Urumea ibaiaren ertzetara itzuliko da, Martutene eta Loiola auzoetara. Esku-hartzeak eta lanen antolaketa **Loiola Kultur Etxetik** koordinatuta dago eta artistak aukeratzeko orduan **ArteUpArte** galeriaren aholkularitza kontuan hartu da.

Azkenean hamar esku-hartze egingo dira guztira, eta horietatik bost Martuteneko auzoan izango dira, beste lau Loiolan, 2019az geroztik egindakoetara gehituko direnak, eta azken bat Urumearen ibilbidearen ondoan, Amaran iristen den inguruetan.

Lehenengo eskuhartzeak ekainean hasi ziren eta urriaren erdialdera arte iraungo dute. Aurreko edizioetan ez bezala, non esku-hartzeak hilabete batean kontzentratzen ziren, aurten bost hilabetetan zehar egiten dira modu mailakatuan. Artista bakoitzaren berezitasunak eta horma-irudiak egutegian zehar behar bezalako protagonismoa izatea ziurtatu nahi izan da, programaren amaiera handitzat utziaz lan batzuk elkarrekin batera egiten hastea..

Kokapenak eta berrikuntzak

Edizio berri bakoitzean espazio eta denbora jakin batera mugatzen ez den proiektu bat da Donostia Apain eta aurretik esku hartutako auzo edo kokapen berrietan lanak gehitzen jarraitzen du. Hori dela eta, antolakuntzak bi proiektu berri gehitzea erabaki du hasiera batean aurreikusitako zortzietan.

Horiek kokatzeko, gizarte- edo hiri-intereseko puntuetan lan egiteko baimenak lortu dira, bistabistakoak edo oso ezagunak direnak: kaleko horma pribatuak edo publikoak, fatxadak, eskailerak, dorreak, etab.

Bost esku-hartze Martutene auzoan egingo dira eta beste lau Loiola auzoan, 2019az geroztik egindakoak osatuz. Loiolarako proposamen berrien artean, eta egiteke dagoena oraindik, nabarmentzekoa da Donostia Apain eta Urkirolak arraun taldearen artean sortutako lankidetzak.

Urkirolaken sorreraren mendeurrena dela eta horma-irudi bat egingo du Moises Vargas Pardo artista txiletarrak, **Kol3jo** izenez ezagunagoa.

Azkenik, berrietasunik handiena Urumea ibaiaren itsasoratzeko ibilbidean topatuko dugu: Cristina Enea parkea eta Federico García Lorca pasealekua Gladys del Estal pasabidearekin lotzen duen dorrea janztea proposatu du Donostia Apainek. Eraikinaren forma, tamaina eta ikusgarritasunagatik konplexu den proiektuari forma emateko arduraduna **Udane Juaristi Udatxo**, artista azkoitiarra izango da

Artistak

Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere tokiko aholkulariak izan dira proiektuaren komisariotza artistikorako eta Gros auzoko **ArteUpaArte** galeriako taldearekin egin da lan.

Hiriko esku-hartze orotan oso garrantzitsua da kontuan hartzea artista batek eta bere lanak inguruko ingurune naturalarekiko eta gizakiarekiko duten konpromisoa. Artisten hautaketa egiterakoan, beren ibilbide artistikoen kalitatea eta ibilbidea oso kontuan hartzeaz gain, esku hartzen duten hiri- eta kultura-ingurunearekin duten lotura baloratu da.

Aurten aukeratutakoak izan dira: **Stephen Webb, Udatxo, Ione Larrañaga, SorTwo, Pablo Astrain, Maialen Arocena, Marina Capdevila, Lidia Cao** eta berriki gehitu den **Kol3jo** txiletarra.

Stephen Webb izan lehenengo artista lanean hasten ekainaren hasieran, Martutene auzoko biribilgunearen ondoan hain zuzen ere. Kartelez eta hezetasunez estalita zegoen adreiluzko konexio elektrikoen nodulu handi batean hartu zuen esku. Hirian bizi den artista ingelesak bere estiloaren erakustaldi bat utzi zuen berriro, espaziora eta ingurunera egokitu eta elkarreragiten duten forma eta kolore mosaikoetan oinarritua.

Hurrengo esku hartzea, ekainaren amaieran, **Udane Juaristi Udatxok** egin zuen Loiolako Urbia kalean. Azkoitiarraren lanak zapatilek eta landareek sortzen dituzten itzal-jokoak, kaleko argia eta naturaren koloreak harrapatzen dituen eszena bat marrazten du.

Naturaren koloreak, landareen itzalak eta haietan sortzen diren marrazkiak. Berdeak eta landareek espazio batera garamatzate, zapatilek eta haien inguruko itzalek, beste espazio batera. Bere zapatilak dira, gure zapatilak, mugimenduaren sinbologia, lurrerantz begira ibiltzearen sinbologia, pausoei begira, eguzkiak naturarekin jolasean marrazten dituen formei adi-adi.

Uztaileko azken hamabostaldian, handik ez oso urrun, **Ione Larrañaga** antzuolatarrak garatu zuen bere artea Haritzetako Gainerako sarbideko eskailera berrietan. Horma-irudi honen bidez,

ibaiaren eta haren ibilbide aldakorraren aurrean hiriak duen hauskortasuna transmititu nahi du; horretarako paperezko itsasontzi hauskor batzuk erabili ditu, eta eskuak, berriz, gizakia sinbolizatzeko.

Kontuan izan du horma-irudia dagoen tokiari Harizti Gain (Harizetako Gaina) deitzen diotela, eta haritz-hostoak eta landaredia sartu ditu, leku horretako natura sinbolizatzeko. Behekaldean, bi eskuk paperezko bi ontzi uzten dituzte ur gainean, eta goikaldean, haritz-adar batek zeharkatzen du ontzietako bat, iragankortasuna eta naturaren indarra sinbolizatuz. Ibaia igarotzea, denbora iragatearen sinbolo eta aldakorra.

Irailaren hasieran, **Jokin Oregi SorTwo** bergararrak eta **Pablo Astrain** donostiarrak elkarrekin batera egin zuten esku hartzea. Irasmonea kaleko sarreran dagoen eraikinetako baten fatxadan “hiperrealismo narratiboarekin” jolasten dira. Estilo horretan, pertsonaiak edo protagonistak kokatzen dituzte modu logikoan egokitzen ez zaien eszenatoki batean, eta egoera errealista batean islatzen dituzte. Errepidera isekaz begiratzen duen neskaren eta loreek itsututako gaztearen arteko konbinazioak oinezkoen arreta erakarri nahi duela dirudi, begiratu bai baina ikusten ez duguna gogora ekarriz.

Idea nagusia espazioarekin jolastea da. Non hormaren formagatik, estetikagatik eta hodiengatik bi espazio paralelo sortzea eskatzen zuen. Bi espazio horiek bi gela erakusten dituzte, zeinetan 2 gizabanakoren arteko lotura figuratibo berezia sinbolizatzen baita. Hori guztia, tulipa horien adiskidetasunaren, alaitasunaren eta zorientasunaren esanahi espirituala eta gama kromatikoa kontuan hartuta, Mikel Tabernako kartelaren eta inguruaren esanahi berbera baita.

Horma-irudi hori amaitzearekin bat, Arantzazu eskolako atarian dagoen Gazte Lekuko horman ekin zion lanari **Maialen Arocenak**. Irunen jaiotako artista plastikoak, behatzailea eta ingurunearekiko sentibera, bere lan askearen eta esperimentalaren estiloan dibertitu eta baliabide piktoriko berriekin jolastu nahi du.

Horma-irudian ibaiaren inguruan oinez edo dantzan doazen pertsonaiak irudikatzen ditu. Horien artean, sagarrak eta fruta-arbolak, animaliak ahateak, txoriak, tximeletak, zaldi bat eta naturako

landare mota desberdinak aurki ditzakegu, baita gizakiak ere. Denen artean festa handi bat osatzen dute, kolorez eta alaitasunez betea, bizitza ospatuz, eta uraren jarioak eramango balitu bezala. Iraganean izandako aisialdiko eta dibertimenduzko bizitza eta jolas-parkearekin lotuu nahi ditu... baita ibaiak sagarren garraiorako izan zuen garrantzia ere.

Iraileko azken astean, eta eguraldia lagun bada, **hiru eskuhartze izango dira** ia aldi berean. Batetik, **Marina Capdevila** kataluniarrak Martuteneko Etxarriene zentroaren fatxada eskuhartuko du **irailaren 24tik aurrera**; bestetik, **27an** hasiko da lanean **Udatxo** Federico Garcia Lorca pasealekuko dorrean, eta egun bat beranduago, **28an**, hasiko dira **Lidia Cao** galiziarraren lanak Martuteneko pasealekuko fatxadetako batean

Azkenik, Donostia Apainek Urkirolaken mendeurrenean inspiratutako horma-irudiarekin itxiko du hirugarren edizio hau. **Urriaren 10ean** hasiko du bere lana, Moises Vargas Pardo txiletarrak, **Kol3jo** izenaz ezagunagoa.

Donostia Kulturak lan berri bakoitzaren hasieraren eta bilakaeraren berri emango du bere sareetan. Azken emaitza urrian aurkeztuko da, esku-hartze artistiko guztiak amaitzear direnean.

Informazio gehiago

kulturekintza@donostia.eus

943 48 38 40